

AGINTARIAK ETA LANGILERIA

Izendapenak, egoerak eta gorabeherak

OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUA

3605

1498/2022 EBAZPENA, ekainaren 8koa, Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko zuzendari-gerentearena, zeinaren bidez Andrés Betrán Visus jauna Osakidetza-Euskal osasun zerbitzuko Donostialdeko Erakunde Sanitario Integratuko Kirurgia Plastikoko Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzen den aldi baterako, lau urte luzagarri.

Donostialdeko ESiko zuzendari-gerentearen apirilaren 19ko 423/2021 Ebazpenaren bitartez, deialdi publiko bat egin zen Donostialdeko ESiko Kirurgia Plastikoko Zerbitzu Sanitarioko Burua lanpostua betetzeko, lehiaketa-sistemaren bidez (2021eko ekainaren 25eko EHAA 125. zk., eta 2021eko urtarrilaren 1eko BOE 156. zk.).

Epaimahaiak baloratu egin ditu aurkeztutako eskabideak, eta dagokion izendapen-proposamena egin du. Horiek horrela Andrés Betrán Visus jaunak dituen ezagutza akademiko eta profesionalak kontuan hartuta, erabaki da hura izendatzea Osakidetzako Donostialdeko ESiko Kirurgia Plastikoko Zerbitzu Sanitarioko buru.

Beraz, bat etorri Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua hiru garren arau komunarekin, Osakidetzaren lanpostu funtzionalak arautzen dituen uztailaren 19ko 186/2005 Dekretuarekin eta azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin,

EBAZTEN DUT:

Lehenengoa.– Andrés Betrán Visus jauna Osakidetzako Donostialdeko ESiko Kirurgia Plastikoko Zerbitzu Sanitarioko buru izendatzea aldi baterako.

Bigarrena.– Izendapen honek lau urteko indarraldia izango du, luzatzeko aukerarekin, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legeko 28. artikulua hiru garren arau komunean ezarritakoarekin bat, eta 2022ko ekainaren 8tik aurrera izango ditu ondorioak.

Hirugarrena.– Izendatutako pertsonak aipatutako epea amaitzean utziko du postua, ezpada luzapena egin ahal izateko baldintzaren bat jazotzen dela eta betiere, Euskadiko Antolamendu Sanitarioari buruzko ekainaren 26ko 8/1997 Legearen aipatutako 28. artikulua ezarritakoarekin bat etorri.

Laugarrena.– Izendapenaren indarraldia amaitu aurretik ere kendu ahal izango dute kargutik izendatua, aldeztu aurretik kontrako espedientea dagoela, eta ekainaren 26ko 8/1997 Legearen 28. artikulua 6. apartuan aurreikusitako lekualdatze-kausak direla medio.

Bosgarrena.– Ebazpen honen berri ematea interesdunari eta Donostialdeko ESleri.

Seigarrena.– Ebazpen honen aurka gora jotzeko errekurtoa aurkeztu ahal izango zaio Osa-
kideztako Zuzendaritza Nagusiari. Horretarako hilabeteko epea izango da, ebazpen hau EHAA
argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera.

Donostia, 2022ko ekainaren 8a.

Donostialdeko ESIko zuzendari-gerentea.

EB (53/2019 Ebazpena, urtarrilaren 24koa).

Langileen zuzendaria,
ESTHER LITAGO SOLA.